

**INGURUMENEN TOKIKO**  
**FOROAREN BILERAREN AKTA**  
**(24.06.08)**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO**  
**LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**  
**(24.06.08)**

LEHENDAKARIORDEA  
KELTSE EIGUREN and, Ingurumen  
Zinegotzia

VICEPRESIDENTE  
Dña. KELTSE EIGUREN, Concejala de  
Medio Ambiente

JOSEBA ARREGI jn, Hirigintza  
Zinegotzia

D. JOSEBA ARREGI,  
Concejal de Urbanismo

IDAZKARIA:  
ARANTZA CABEZA and.

SECRETARIA:  
D<sup>a</sup>. ARANTZA CABEZA

INGURUMEN TEKNIKARIA:  
JOSU ATEKA jn.

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:  
D. JOSU ATEKA

INGURUMEN AHOLKULARIA:  
JULEN REKONDO jn. (Ingurune)

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:  
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ETORRI DIRENAK:

ASISTENTES:

PATXI DIAZ jn. (Ingurumenean eta  
Ibilbide Ekologikoetan entzute handiko  
pertsona)

D. PATXI DIAZ (Persona de reconocido  
prestigio en Medio Ambiente e Itinerarios  
Ecológicos)

PEDRO ORTUETA jn. (Ekologistak  
Martxan)

D. PEDRO ORTUETA (Ekologistak  
Martxan).

TXEMA GOROSTIAGA jn.  
(Ingurumenean entzute handiko pertsona  
eta EHUKo irakaslea)

D. TXEMA GOROSTIAGA (Persona de  
reconocido prestigio en Medio Ambiente  
y profesor de la UPV).

MAITE IBARBENGOCHEA and. eta  
JOSE ALMEIDA jn. (Getxo Enpresa eta  
Merkataritza)

D<sup>a</sup> MAITE IBARBENGOCHEA Y D.  
JOSE ALMEIDA (Getxo Empresarial y  
Comercial)

MAXIMO GOMEZ jn. (Basozaleak),  
EMILIO MARTINEZ jaunak lagunduta  
(Basozaleak).

D. MÁXIMO GÓMEZ (Basozaleak),  
acompañado de D. EMILIO MARTÍNEZ  
(Basozaleak)

CARLOS ARANA jn. (FEGEVOL)

D. CARLOS ARANA (FEGEVOL),

DIMAS RAMOS jn. (Kirol Elkartek)

D. DIMAS RAMOS (Asociaciones)

SILVIA ZALBIDEA and. (BIZKEL Elbarrituen Elkartea)	Deportivas) D.ªSILVIA ZALBIDEA (Asociación de Discapacitados BIZKEL)
TOMI ETXEANDIA jn. (Eskola Agenda 21 eta San Nikolas Ikastolako irakaslea)	D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y Profesor de San Nicolás Ikastola)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumenean entzute handiko pertsona)	D.XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
KOLDO NABASKUES j.n. ( Urkoa, Kontsumitzaileen Elkartea).	D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores URKOA).

Ezin duela etorri adierazi du RODA Elkarteko Mª ANTONIA ANTON andreak.	Excusa su no asistencia Dña. Mª ANTONIA ANTON de la Asociación RODA.
--	--

Getxon, 2008ko ekainaren 24an, arratsaldeko zazpitan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foro hau, goian aipatu kideak bertaratu direlarik.	En Getxo, a 24 de junio de 2008. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.
---	--

Gai-zerrendari heldu zaio, eta emaitza ondorengo hau izan da:	Se aborda el Orden del Día, con el siguiente resultado:
--	--

## GAI-ZERREDA

## ORDEN DEL DÍA

<b>1. Ingurumeneko Tokiko Foroak 2008ko maiatzaren 27an egin zuen bileraren akta onestea.</b>	<b>1. Aprobación del Acta del Foro Local de Medio Ambiente celebrado el 27 de mayo de 2008.</b>
---	---

Almeida jaunak zehaztu nahi du Getxo Enpresa eta Merkataritzatik egin zen proposamena honako hau zela: -Mugikortasunaren Astean kaleetako karga- eta deskarga-lanak liberalizatzea. -Kalean animazio-jarduera gehiago egitea. Zehaztasun horiek egin ondoren, aho batez onetsi da Ingurumeneko Tokiko Foroak 2008ko maiatzaren 27an egindako bileraren akta.	El Sr. Almeida quiere matizar que la propuesta realizada desde GEYC era: -Liberalizar durante la Semana de la Movilidad la carga y descarga de las calles. -Realización de mayor número de actividades de animación en la calle. Hecha esta matización, se aprueba por unanimidad el acta del Foro Local de Medio Ambiente celebrado el pasado 27 de mayo de 2008.
--	--

<b>2. Bidegorrien Plan Berezia Aurrerapenaren</b>	<b>2. Propuestas, sugerencias y aportaciones al Avance del Plan de</b>
---	--

**proposamenak, iradokizunak eta Especial de Bidegorris. ekarpenak.**

Lehendabizi, Tomi Etxeandia jaunak (Eskola Agenda 21eko kide eta San Nikolas Ikastolako irakasle) esan du ikastetxeei ez zaiela iritsi aipatu planaren inguruko maparik ez eta informaziorik ere, eta horren zergatia galdetu du. Joseba Arregi zinegotzi jaunak erantzun dio harritzen diola, eta galdetuko duela ea zer den gertatu dena.

Jarraian, Pedro Ortueta jaunak, Ekologistak Martxan elkarteak ordezkariek, bere kolektiboak Bidegorrien Plan Bereziaren Aurrerapenaren inguruan egin duen balorazioa azaldu du. Balorazio hori posta elektronikoz bidali die lehenago Foroko kide guztiei.

Pedro Ortueta jaunak honako hauek planteatu ditu:

Planaren Aurrerapenaren inguruan igorri zaien informazioak bidegorriek izango dituzten trazatu orokorrak bakarrik hartzen ditu. Beraz, beraien balorazioa aurkeztu den trazatu orokorrari buruzkoa da bakarrik. Horregatik, egiteke geratzen da Planaren Aurrerapenaren inguruko balorazio orokorra. Izan ere, balorazio orokorra egiteko ezinbestean ezagutu behar dituzte xehetasunez bizikleta erabiltzeko funtsezkoak diren hainbat segurtasun-alderdi, hala nola bidegorrien eta errepideen arteko zenbait bidegurutze (batez ere baterako erabilera dagoen kasuetan) nahiz bidegorriei lotutako azpiegiturak, bereziki bizikletentzako aparkalekuak, horien diseinua, metro-geltokietan izango duten kokalekua, ikastetxeetan, kiroldegietan, eta abar.

En primer lugar, D. Tomi Etxeandía (miembro de la Agenda Escolar 21 y Profesor de San Nicolás Ikastola) plantea que a los centros escolares no ha llegado el mapa relativo al citado plan, ni información alguna, y pregunta a que se debe. El concejal D. Joseba Arregui responde que le extraña y que ya se va enterar qué es lo que ha pasado.

A continuación D. Pedro Ortueta, representante de Ekologistak Martxan expone la valoración que hace su colectivo del Avance del Plan de Especial de Bidegorris, que previamente se ha pasado por correo electrónico al conjunto de miembros/as del Foro.

D. Pedro Ortueta plantea las siguientes cuestiones:

La información que se nos ha transmitido del Avance del Plan sólo incluye los trazados generales que seguirán los bidegorris. Por tanto, esta valoración se refiere únicamente al trazado general presentado, quedando pendiente una valoración global del plan que sólo podrá hacerse cuando conozcamos con detalle aspectos de seguridad esenciales para el uso de la bicicleta como determinadas intersecciones de los bidegorris con carreteras (sobre todo donde haya uso compartido) así como las infraestructuras ligadas a los bidegorris, especialmente, los aparcabicis, su diseño y ubicación en estaciones de metro, centros educativos, polideportivos, etc.

Ekologistak Martxan elkarteak erabat ados dago Planaren helburu orokorrarekin. Helburu horren arabera, bizikleta eguneroko bizitzarako erabiliko den alternatiba erreal bilakatu nahi da eta, horretarako, egungo fasea, bizikleta aisialdirako eta olgetarako bakarrik erabiltzeari dagokiona, gaintitu egin behar da.

Planaren helburu orokorraren ildo beretik, ez daude batere ados, desegokia delako, kostaldeko bidegorria eraikitzearekin. Izan ere, bidegorri horren erabilera aisialdikoa bakarrik izango litzake, eta eragin handia izango luke natur ingurunean. Aixerrota eta Aizkorri komunikatzeko, golf klubak duen hormarekiko paraleloan joango den barrualdeko bidegorri bat proposatzen da, edo, bestela, ibilgailuekin batera ibiltzeko trazatu bat diseinatzea, zonaldean lehendik dauden bideak aprobetxatuz.

Beraien iritziz ez da konponduta geratzen Algortaren hirigunetik Fadura ingurura bidegorritik joan ahal izateko komunikazioa. Algortako metro-geltokiko plazatik Fadurara joateko aurkeztu den trazatuan, ezinbestekoa da Maidagango langetaraino joatea, Ollarretxetik itzultzeko edo, bestela, Basagoiti Etorbidetik joatea, Neguriraino eta Golf Zaharreraino, Makaletako Etorbidetik itzultzeko. Komunikazio-gabezia horrek eragina izango du, bereziki, Fadurako kiroldegiko erabiltzaileen artean eta San Nikolas Ikastolako ikasleen eta irakasleen artean; izan ere, aurkeztutako diseinuarekin, Faduraraino joan behar dute, handik Ikastolara sartzeko. Proposatutako

Ekologistak Martxan está totalmente de acuerdo con el objetivo general del Plan de convertir la bicicleta en una alternativa real y cotidiana a otros tipos de transporte, superando la actual fase de uso únicamente recreativo o de ocio.

En línea con el objetivo general del Plan, manifiestan su total desacuerdo, por inconveniente, con la realización del bidegorri del frente litoral, ya que tendría un uso exclusivamente recreativo con una importante afectación del medio natural. Para comunicar Aixerrota con Azkorri, proponemos que se realice un bidegorri interior paralelo al muro de la finca del club de golf o que se diseñe un trazado compartido con vehículos aprovechando las estradas de la zona.

Consideran que no queda resuelta la comunicación para ir por bidegorri desde el centro de Algorta hacia la zona de Fadura. En el trazado que se nos ha presentado para ir desde la plaza de la estación del metro de Algorta a Fadura es preciso ir hasta las barreras de Maidagan para volver por Ollarretxe o, como alternativa, ir por la Avenida Basagoiti hasta Neguri y el Antiguo Golf para volver por la Avenida de los Chupos. Esta falta de comunicación afectará especialmente a los usuarios del polideportivo de Fadura y a los alumnos y profesores de la Ikastola San Nicolás ya que el diseño presentado les obliga a ir hasta Fadura y desde allí entrar a la ikastola. Con el trazado propuesto, lo más

trazatuarekin litekeena da bi zentro horietako erabiltzaileek errepide bidezko ibilbide motzagoak bilatzea, bidegorriak alde batera utziz. Gogorarazi behar da, alderantziz, Planak Salsidu Etorbideko arrapala mekanikoak erabiltzea proposatzen duela, Getxo 1 Institutuko bidegurutzetik Algortako hiriguneraino igortzeko, baina ez arrapalak eta ezta aipatu kalea ere ezin direla erabiliki beherantz egiteko.

Neguritik Algortara dagoen sarbide bat, metroarekiko paraleloan doana, bat-batean amaitzen da Euskalherria kalearen hasieran. Trazatu horri irteera bat bilatu behar zaiola ulertzen dute, Neguritik Algortara joateko alternatiba horrek Basagoiti Etorbidea eta Torrene kalea oinezkoekin batera erabiltzea saihesten delako.

Azkenik, bidegorrietatik doazenentzako abiadura-muga bat ezartzea proposatu dute, bereziki bidegorriak oinezkoekin batera erabiltzen dituzten aldeetan. Gehieneko abiadura hori erabiltzaileei etengabe gogorarazteko xedez, lurlean metro gutxitik metro gutxira margotu beharko litzake.

Bestalde, Tomi Etxeandia jaunak esan du proiektu ambizioso dela, sustatu beharrekoa, eta komentatu du ez zela Planaren Aurrerapenaren aurkezpen-bileran izan, eta planoan agertzen ez diren baina aztertu nahiko lituzkeen xehetasun garrantzitsu asko daudela. Beste batzuen artean, aipatu du Salsiduko jaitsiera eskailera mekanikoekin agertzen dela, baina horiek noranzko bakarrekoak direla, eta bide-zati hori funtsezkoa dela bere ikastetxea eta Algortaren hirigunea

probable es que los usuarios de ambos centros busquen itinerarios por carretera más cortos, dejando de lado los bidegorris. Hay que recordar que en sentido inverso, el Plan propone utilizar las rampas mecánicas de la Avenida Salsidu para subir desde el cruce del Instituto Getxo 1 hasta el centro de Algorta pero que ni las rampas ni la citada calle se pueden usar en sentido descendente.

Desde Neguri hay un acceso a Algorta que, yendo en paralelo a las vías del metro, termina bruscamente al inicio de la calle Euskalherria. Consideran que debe buscarse una salida a este trazado porque para ir de Neguri a Algorta, es una alternativa que evita el tramo de uso compartido con peatones de Avenida Basagoiti y de la calle Torrene.

Por último, proponen establecer una limitación de velocidad a los que circulan por los bidegorris, especialmente en las zonas de uso compartido con peatones. Como recordatorio a los usuarios, esa velocidad máxima debería ir indicada cada pocos metros en el suelo con pintura.

Por su parte, D. Tomi Etxeandía lo considera un proyecto ambicioso y a potenciar, y comenta que no estuvo en la reunión de presentación del Avance del Plan y hay muchos detalles importantes que no aparecen en el plano y que le gustaría estudiar. Entre otros, la bajada de Salsidu aparece como escaleras mecánicas, pero estas van en un único sentido y ese tramo es fundamental para unir su centro escolar y el centro de Algorta. “Conozco la calle y no se como

lotzeko. “Ezagutzen dut kalea, eta ez dakit nola jarri daitekeen bizikletak igotzeko nahiz jaisteko”. Aparkalekuak non joango diren galdetu du. Era berean, Cervantes kalea lehen bi noranzkoko kalea zela eta orain noranzko bakarrekoa dela esan du.

Jarraian, Basozaleak elkarteko ordezkari den Maximo Gomez jaunak jakinarazi du bere kolektiboko aditu botanikoen iritzia benetan negatiboa dela bidegorriak kostaldetik, La Galeatik Aizkorriara, egiten duen trazatuari dagokionez. Bere egunean elkartaren web orrian La Galeako landareei buruz argitaratu zuten artikulu batetarako esteka aipatu du. Landare horiek aberastasun botanikoa ematen diote La Galea/Aizkorri ibilbidearen bide-ertzeari. <http://basozaleak.com/phpBB2/viewtopic.php?t=1739>.

Jendea, bizikletak eta abar leku horietatik ez igarotzeko, zonalde batzuk akotatzea iradoki du. Bizikletek, batez ere trialekoek, sortzen duten higadura izugarria da.

Txema Gorostiaga jaunak, EHUko Botanika Saileko irakasleak, adierazi du beti daudela eraginak, baina arazoa sortzen dela eragina larria izan daitekeenean eta, horregatik, jarduketa hori gauzatzea ez denean gomendagarria. Aberastasun botanikoari eta faunistikoari dagokionez, esan du ez duela xehetasun handiz ezagutzen eta, zentzu horretan, interesgarria izango litzakeela EHUk, Udalarekin hitzarmen bat sinatuta, zonalde horren aberastasunaren inguruko azterlan bat egingo balu. Egun arrunt batean izan dezakeen eragin erreala behatu eta aztertu beharko litzake, eta

se pueden poner subida y bajada en bicicleta”. ¿Donde van los aparcamientos?, pregunta. Asimismo, en la C/ Cervantes antes había dos direcciones y ahora solo una.

A continuación D. Máximo Gómez, representante de Basozaleak, informa que la opinión de los expertos botánicos de su colectivo es francamente negativa en relación con el paso del bidegorri por el frente litoral desde La Galea a Azkorri, y cita el enlace de un artículo que subieron en su día a su web sobre plantas en la Galea, y que da una idea de la riqueza botánica de los bordes del paseo Galea/Azkorri. <http://basozaleak.com/phpBB2/viewtopic.php?t=1739>.

Sugiere acotar zonas para que la gente, bicis...no pasen por ahí. La erosión que producen las bicis, sobre todo de trial es tremenda.

D. Txema Gorostiaga, profesor de la UPV, en el departamento de Botánica, señala, que siempre hay impactos, el problema es si en este caso puede ser crítico y en este sentido es desaconsejable realizar la actuación. En cuanto a la riqueza botánica y faunístico viene a decir que no la conoce con suma concreción y que en este sentido podría ser interesante realizar por parte de la UPV, a través de un convenio con el Ayuntamiento, un estudio de la riqueza de la zona. Observar y analizar el impacto real de un día normal y comprobar si los hábitos son realmente dañinos.

ohiturak benetan kaltegarriak diren egiaztatu.

Jose Almeida jaunak, Kale Nagusiari eta Telletxe kaleari dagokienez jakin nahi izan du nola dauden zehaztuta kale horietako sekzioak, eta ea aparkaleku-plazak desagerrarazi egingo diren.

Patxi Diaz jaunak esan du ez dagoela ados bidegorriak La Galeako zonalde horretan duen trazatuarekin. Bere iritziz, ezin da aisialdia besterik gabe defendatu, eta jendea bide horretatik sartzen jarraitzen uztea. Aisialdirako espazioa aprobetxatu egin behar da, eta ingurumen-hezkuntza egin behar da: natura azaldu, sasoi jakinetan zenbait alde mugatu,...

Jarraian Joseba Arregik hartu du hitza, eta planteatu diren zalantzei erantzuten saiatu da.

- Salsiduri dagokionez, jaisteko bide bat bilatu beharko da, alderdi hori ez baitzegoen konponduta.
- Neguri-Euskalherria artekoa ere oraindik ez da erabaki planteatutakoa.
- Cervantes kalean, aparkaleku-lerro bat desagerraraziko da.
- Makaletako etorbidearena oraindik ez da erabaki. Foru Aldundiak bide-zatia lagapenean ematen duenean itxura hiritarragoa edukiko du, ez du errepide-itxura hain handia izango.
- Kale Nagusian Bartzelonaren estiloko erabilera mistoa aurreikusi da, aparkalekuak sakrifikatu gabe.
- Telletxe kalean ere zaila dirudi kalearen bi aldeetako aparkalekuak mantentzea; ez da zehaztu

D. José Almeida, en relación a la C/ Mayor y Telletxe desea saber como están definidas las secciones en esas calles y si se van a eliminar plazas de aparcamiento.

D. Patxi Díaz muestra su disconformidad con el trazado del bidegorri en esa zona de La Galea; en su opinión no se puede defender el ocio por el ocio y dejar que siga entrando la gente por ese camino. Hay que aprovechar el espacio para hacer ocio y hacer educación ambiental: explicar la naturaleza, restringir zonas en determinadas épocas...

Seguidamente toma la palabra Joseba Arregi intentando dar respuesta a las cuestiones planteadas,

- Respecto a Salsidu, habrá que buscar un tramo de bajada, dado que no estaba solucionado ese aspecto.
- Neguri-Euskalherria también está por resolver lo planteado.
- Cervantes, la idea es eliminar una línea de aparcamiento.
- Chupos, por resolver; cuando la Diputación ceda el tramo, tendrá un aspecto más urbano y menos de carretera.
- C/ Mayor, se piensa en un uso mixto tipo Barcelona sin sacrificar aparcamientos.
- Telletxe también parece complicado mantener el aparcamiento en batería a ambos lados; no está definida, igual una zona mixta 30 ó una zona elevada

oraindik. Agian 30eko zonalde misto bat edo espaloia-aren eta galtzadaren arteko bereizketarik gabeko zonalde jaso bat.

Ondoren azaldu du 30eko zonalde deitzen zaiola ibilgailuek 30m km orduko baino abiadura handiagoan joaterik ez dutenean, eta bizikletek, galtzadaren erdialdetik joaten direnek, lehtasuna dutenean autoaren aldean.

- Aurrerapen bat dela adierazi du, eta horregatik daudela oraindik ebatzi gabeko hainbat alderdi. Ideia da seinaleztatzea eta ahalik eta gehien kontrolatzea, eta baita abiadura mugatzea ere.
- Aparkalekuei dagokienez, jarraitu beharreko estrategia azalerako aparkalekuak kentzea eta txandakako aparkalekuak sustatzea da.

sin distinción entre acera y calzada. Explica que zona 30 es aquella en donde el coche no puede ir a más de 30 km/h y la bici, que circula por medio de la calzada, tiene prioridad sobre el coche.

- Apunta que es un avance, de ahí que haya aspectos por resolver. La idea es señalar y controlar lo máximo posible, así como limitar la velocidad.
- Respecto al tema de aparcamientos la estrategia es quitar en superficie y potenciar el rotatorio.

Almeida jaunak adierazi du elkartekideei Mesedeetako aparkalekuan plaza erostera animatu zitzaiela, baina ondoren jendeak ez duela aparkatzera jaitsi nahi, badakitelako pare bat buelta eman ondoren kalean bertan aparkatzea lortuko dutela. Kalean aparkatzeari utziko diote lekuri ez dagoenean.

El Sr. Almeida señala que se animó a los asociados a comprar en el parking de Las Mercedes, pero la gente no quiere bajar a aparcar porque sabe que dando dos vueltas va a conseguir aparcar en la calle. Dejaremos de aparcar en la calle cuando no haya sitio.

Patxi Diaz jaunak esan du Foru Aldundiak egin behar duena Bilbo Getxorekin lotzea dela. Galdetu du ea badagoen Foru Aldundiarekin eta Leioako Udalarekin batera lan egiteko moduren bat.

Patxi Díaz plantea que la Diputación lo que tiene que hacer es unir Bilbao con Getxo. Pregunta si hay alguna manera de trabajar conjuntamente con Diputación y Ayuntamiento de Leioa.

Joseba Arregi jaunak esan dio Foru Aldundiak ez duela Planik. Leioarekiko lotura Artazatik egingo da, Gobelaurre; Foru Aldundiak Udalek

Joseba Arregi le comenta que la Diputación no tiene un Plan. Conectaremos con Leioa por Artaza hasta Gobelaurre; la Diputación trabaja a



eskatutakoaren arabera egiten du lan.

petición de los Ayuntamientos.

Tomi Etxeandia jaunak bat egin du Patxi Diaz jaunak eskatutakoarekin, hots, maileguko bizikletekin Bilboraino iristeko aukera jartzeko eskaerarekin. Gainera, mailegu-puntuak hirigunean koka daitezzen eskatu du.

Tomi Etxeandía se adhiere a la petición de Patxi Díaz para que se extienda la posibilidad de que se pueda llegar hasta Bilbao con las bicis de préstamo y que los puestos de préstamo se encuentren en el centro.

Josu Arteka jaunak erantzun du bigarren urtea dutela, baina hori dela etorkizunera begirako ideia. Iaz mailegua aisialdirako bakarrik zegoen pentsatuta, baina aurten zabaldu nahi izan da, eta garraiobide gisa erabiltzea bultzatu da. Horregatik lotu dira kiroldegiak. Adierazi du, baita ere, erabiltzaileak ez direla gazteak izaten, eta erabiltzaile gehien izan dituen ordutegia 5etatik 7etara bitartekoa izan dela.

Josu Ateka contesta que es nuestro segundo año pero esa es la idea de futuro; el año pasado el préstamo estaba pensado para el ocio pero este año se ha querido extender y utilizarlo como medio de transporte, es por eso que se han unido los polideportivos; indicar que la gente que lo utiliza no es precisamente joven y que el horario más utilizado ha sido el de 5 a 7 horas.

Bestalde, Xabier Buenetxea jaunak aurretik Foroari igorri dizkion materialen eta idatzien azalpen-laburpena egin du. Ondorioen artean honako hauek daude: Kostaldeko zerrenda horretan gertatu diren eraldaketak nabarmenak dira, eta horrek paseatzen ibiltzen den jendea ugaritzea eragin du. Horren ondorioz, jatorrizko habitata desagertzen ari da, eta bertako florak eta faunak eragin larriak jasan ditu.

Por su parte, D. Xabier Buenetxea hace una exposición-resumen de los materiales y escritos que ha pasado previamente al Foro. Entre sus conclusiones, están las siguientes:

Las transformaciones producidas en esta franja costera son obvias y han repercutido en un incremento del número de paseantes. Ello está provocando la desaparición del hábitat original y graves repercusiones sobre la flora y la fauna residente.

Ezinbestekoa da faunaren eta floraren egungo egoera sakonago ezagutzea, eta fauna eta flora hori kontserbatzeko mesedegarriak izan daitezkeen neurriak hartzea. Neurri horien artean egongo litzake zenbait zonaldeetarako sarbidea mugatzea edo debekatzea.

Se considera necesario conocer más a fondo la situación actual de la fauna y la flora y llevar a cabo medidas que puedan ser beneficiosas para su conservación, entre las que estaría la restricción o limitación de accesos a determinadas zonas.

Inguruneak La Galean duen karga-ahalmena bere mugara iritsi da, eta kudeatu egin behar da.

La capacidad de carga del Medio en La Galea ha llegado a su máximo; hay que gestionarlo.

Punta Galea eta Barinatxe artean bidegorri bat edo bizikletentzako bide bat eraikitzeak ez du batere hobetuko espazio natural horren egungo gainbehera. Horrek ez luke saihestuko, gainera, bizikletek eragiten duten higadura. Izan ere, beste zonaldeetan ere gertatu den bezala, espazioa beste txirrindulari-mota batzuk (haurrak dituzten familiak eta abar) ere erabiltzea bultzatuko litzake, baina ez litzake saihestuko bide-zati hori jadanik erabiltzen duten zikloturistek sortutako errei gehigarriak erabiltzea. Ondorioz, beraz, paseatzen ibiltzen den jendea nahiz txirrindulariak ugarituko lirateke eta habitat horren berezko faunak eta florak ziurrenik konponezina izango litzakeen kalteak izango lituzkete.

La construcción de un bidegorri o carril-bici, en el tramo comprendido entre Punta-Galea y Barinatxe, no va a mejorar en absoluto el declive actual de este espacio natural. Ni siquiera evitaría la erosión provocada por las bicicletas ya que, como ha sucedido en otras zonas, se incrementaría el uso del espacio por otro tipo de ciclistas (familias con niños, etc.), pero no evitaría el uso de los carriles adicionales ya creados por los cicloturistas, quienes ya actualmente utilizan este tramo. Las consecuencias, por lo tanto, supondrían un incremento aún mayor del número de paseantes, del número de ciclistas y una disminución, seguramente irreparable, de la fauna y la flora característica de este hábitat.

Getxoko udalerriko iraunkortasun-helburu oro mota horretako ekintza baten aurka dago erabat. Bidegorrien sarea garraibide alternatibo gisa planteatu behar da, erabilera publikoko alde orotara bizikletaz iristea ahalbidetuz, eta horrekin lehendik dagoen ingurune naturalean gorabehera edo arazo berriak sortu gabe. Hirigunea Barinatxeko hondartzarekin eta Gorrondatxerekin bizikleta-bideen bidez lotzeko alternatiba hobeak badaudela uste da. Alternatiba horien artean lehendik dagoen errepidean mota gorretako bide-zati bat gaitzeko aukera aztertu beharko litzake.

Cualquier objetivo de sostenibilidad en el municipio de Getxo choca frontalmente con una acción de este tipo. Una red de bidegorris debiera plantearse como una alternativa de medio de transporte que permitiese acceder en bicicleta a cualquier zona de uso público sin para ello causar nuevos trastornos al medio natural preexistente. Se considera que hay mejores alternativas para unir mediante carriles-bici el núcleo urbano con la playa de Barinatxe y Gorrondatxe, entre ellos pudiera estudiarse la habilitación de un tramo de este tipo en la carretera ya existente.

Bestalde, bere azalpenean honako neurri hauek proposatu ditu:

Por otra parte, en su exposición propone las medidas siguientes:

1. Ingurumen-hezkuntzako kanpaina gogor eta serioa gauzatzea. Kanpainak ondo diseinatuta egon beharko du, eta aurkitutako arazoak azalduko ditu.

1. Llevar a cabo una fuerte y seria campaña de educación ambiental bien diseñada que explique la problemática encontrada. Se debe hacer hincapié en la

Sarbide mugatua duten aldeak errespetatu beharra, bertan bizi diren espezie guztien garrantzia (batez ere sugeak), eta abar azpimarratuko dira.

2. Erabilera publikoko eremuak txandaka mugatu egingo dira, urte-sasoia araberaren. Lehendabizi gehien erabiltzen diren bideak (bide nagusiak) eta bigarren mailakoak edo hainbeste erabiltzen ez direnak bereizi behar dira. Ondoren, bigarren alde horietakoren bat hesitu eta seinaleztatzea gomendatzen da. Alde horiek pre-txilardiarekin birkolonizatu daitezkeenak izango dira, eta pre-txilardiaren iraunkortasuna sustatuko da. Gainera, ugaltze-sasoietan (udaberriaren batez ere) espezie horiek beren habiak egiteko erabiltzen dituzten aldeetarako sarbidea mugatzea gomendatzen da, espezie horiengan eragin daitezkeen kalteak minimizatzekeo xedez. Hori guztia ingurumen-hezkuntzako kanpaina erakargarri batekin egin behar da. Eremu sentikorrenak identifikatu eta lokalizatu behar dira.

3. Kostaldeko txilardi lehorra modu naturalean birkolonizatzea sustatu behar da, zenbait zonaldeetatik igarotzea debekatuz. Eta modu naturalean birkolonizatu ezin bada, landare autoktonoko landaketa artifizialak egingo dira.

4. Ingurune naturalaren jarraipena egingo da, eta laginketa-metodologia bat diseinatuko da, biztanlerien bilakaera ezagutzeko datuak eskuratu eta alderatu ahal izatekeo. Alderdi hau bereziki garrantzitsua da narrastien kasurako.

5. Bideen edo bidegorrien azpiegiturak zabaltzea saihestu beharko litzake,

respetabilidad de las áreas de paso restringido, la importancia de todas las especies que allí habitan (sobre todo las culebras), etc.

2. Restringir las zonas de uso público alternativamente y dependiendo de las épocas del año. Se trata de distinguir primero los caminos y puntos más frecuentados (vías principales) de los secundarios o utilizados con menos frecuencia. Se recomienda, entonces, vallar y señalar alguna de estas segundas zonas, procurando que sean puntos donde se pueda facilitar la recolonización del prebrezal y favorecer su continuidad. Además, durante la época de reproducción (primavera, fundamentalmente) se recomienda restringir el paso a las zonas donde, estas especies, decidan hacer sus nidos, para minimizar así las molestias. Todo esto debe ir acompañado de una atractiva campaña de educación ambiental. Se trata de identificar y localizar una serie de Zonas Sensibles.

3. Potenciar la recolonización de las matas de Brezal Seco Costero de forma natural, mediante las restricciones de paso y si ya no puede ser de manera natural, llevar a cabo plantaciones artificiales con planta autóctona.

4. Proseguir con los seguimientos del medio natural y diseñar una metodología de muestreo que permita conocer y comparar los datos para conocer la evolución de las poblaciones. Este aspecto debiera ser especialmente importante para el caso de los reptiles.

5. Se debiera de evitar ampliar las infraestructuras de caminos o bidegorris,

bereziki B zatian (Punta Galea-Barinatxeko hondartza). Behar izanez gero, txirrindularien zirkulazioa arautzea gomendatzen da, bizikletentzako bide bereziak egin beharrik gabe. Hori lortzeko, igarobideak seinaleztatuko dira, sasoika, eragin dezaketen higadura orokorra minimizatzea lortuz eta sasoi arabera txandatu, lehen erabilitako bidezati horiek birsortzea ahalbidetuz. Aztertu beharreko beste aukera bat izango litzake txirrindularien zirkulazioa barrualdeko beste aldeetara desbideratzea (La Galeako Golf Klubaren barrualdeko mugarantz adibidez); horrela, higaduraren arazoa saihestuko litzake, eta baita oinezkoen eta txirrindularien arteko desadostasunak ere. Hirigunea eta kanpoaldeko hondartzak (Barinatxe eta Gorrondatxe) lotuko dituen bidegorriari dagokionez, lehendik dagoen errepide nagusiaren trazatuan gaitzeko aukera aztertzea komeni da.

Bestalde, Patxi Diaz jaunak ere bat egin du bidegorria La Galea/Aizkorri ingurutik igarotzearen aurkako jarrerekin, faunari eta florari dagokionez eragingo lituzkeen arazoengatik. Inguru horren egoera txarra aprobetxatu eta ingurumen-hezkuntzako eta -kontzientziazioko kanpaina iraunkor bat egin daitekeela planteatu du. Azkenik esan du lehen ere zehaztu direla bidegorriarentzako beste aukera batzuk.

Pedro Ortueta jaunak esan du bidegorri osotik ezinbestekoa ez den kilometro eta erdi dela, eta zentzua izango lukeela aisialdirako pentsatutako bidegorria izango balitz, baina bizikleta garraibide gisa ulertzen duen proiektu bat denez, bidezati horrek ez duela ezer ezerekin lotzen, eta, hortaz, izango lukeen eragina

especialmente en el tramo B (Punta Galea-Playa de Barinatxe). Se recomienda, si es preciso, regular el tránsito cicloturista, sin necesidad de hacer viales especiales. Esto se puede lograr señalizando las zonas de paso, por temporadas, de forma que se minimice la erosión generalizada que provocan y se puedan rotar temporalmente, permitiendo la regeneración posterior de esos tramos. Otra opción a estudiar consistiría en desviar el tráfico cicloturista a otras zonas del interior (como pudiera ser la linde interior del Club de Golf de la Galea), donde se evitaría el problema de la erosión y las discrepancias entre paseantes y cicloturistas. Para la opción de un bidegorri que una el núcleo urbano con las playas exteriores (Barinatxe y Gorrondatxe) sería conveniente estudiar la posibilidad de habilitarlo en el trazado de carretera principal ya existente.

Por su parte, D.Patxi Díaz también se suma a las posiciones en contra del paso del bidegorri por la zona de La Galea/Azkorri, por los problemas que conlleva a nivel faunístico y botánico. Y plantea que se puede aprovechar la situación de deterioro de esa zona realizando una campaña permanente de educación y concienciación ambiental. Finaliza diciendo que hay otras alternativas para el bidegorri ya explicitadas en otras intervenciones.

D. Pedro Ortueta apoya la opinión de que es el kilómetro y medio más prescindible de todo el bidegorri y tendría sentido si estuviera pensado para ocio, pero dado que es un proyecto en el que la bici se considera medio de transporte, este tramo no comunica con nada por lo que no tiene

aintzat izanik, ez duela zentzurik.

sentido dado el impacto que provocaría.

Carlos Arana jaunak aparkalekua atzerantz ekartzea proposatu du, Faroraino iritsi ez dadin.

Carlos Arana propone retraer el parking de más atrás, en lugar de que llegue hasta el Faro.

Une horretara iritsita, Xabier Buenetxea jaunak adierazi du ea ez litzatekeen beharrezkoa izango bozketa egitea, Foroak gai horren inguruan duen jarrera ezagutzeko. Azkenik, ez bozkatzera erabaki da. Izan ere, esandakoak esan ondoren, agerian geratu da Foroko kide gehienak La Galea/Aizkorri kostaldetik doan bidegorria egitearen aurka daudela. Hortaz, Foroko kideen gehiengo azkeneko zati horren aurka dagoela jaso da.

Llegado a este estado de la cuestión, D. Xabier Buenetxea plantea si no sería necesario hacer una votación para conocer la posición del Foro al respecto. Al final, se decide no hacerla, ya que por las intervenciones habidas, se ve que la mayor parte de los miembros del Foro están en contra de la realización del bidegorri por el frente litoral La Galea/Azkorri; mayoritariamente se recoge la opinión del Foro contraria a este último tramo.

### **3. Getxoren Iraunkortasunerako 2008-2011 Ekintza Planaren ebaluazioa eta jarraipena.**

### **3. Evaluación y seguimiento del Plan de Acción para la Sostenibilidad de Getxo 2008-2011.**

Aho batez erabaki da gai hau Foroak 2008ko irailaren 30ean egingo duen hurrengo bileran jorrazteko uztea. Izan ere, bilera horretan denbora gehiago izango da eta, gainera, oraindik ez da jaso zenbait sailletako informazioa.

Se pospone el tratamiento de este tema por unanimidad para la próxima reunión del Foro a celebrar el 30 de septiembre de 2008, donde habrá más tiempo para ello, y dado que hay información de otros departamentos de la que aún no disponemos.

### **4.- Galde-erreguak.**

### **4.- Ruegos y preguntas.**

Foroko kide den Patxi Diaz jaunak proposatuta, Hirigintzako zinegotzi den Joseba Arregi jaunak Gobela ibaiaren eta ibaiertzaren egokitzapenerako eta bertako ingurumena berreskuratzeko proiektua, xedetzat uholdeak saihestea duena, azaldu du. Joseba Arregi jaunak adierazi du proiektu hori gauzatzeko hasierako akordio bat dutela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin, eta esan du proiektua Eusko Jaurlaritzaren mendeko

A propuesta del miembro del Foro D. Patxi Díaz se informa por parte del concejal de Urbanismo D. Joseba Arregui del proyecto de adecuación y recuperación ambiental del río Gobela y sus riberas con el fin de evitar inundaciones. D. Joseba Arregui informa de un principio de acuerdo con el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco para la ejecución de dicho proyecto, y señala que está siendo

URA Uraren Euskal Agentzia idazten ari dela. Proiektua Udaleko teknikariek berrikusiko dute, ondoren onetsia izan dadin. Ondoren, bi erakundeen asmoa da proiektua jendaurrean jartzea, Getxoko herritarrek ezagutu dezaten. Era berean, Joseba Arregik jakinarazi du udal saneamendu-sarea berrikusiko dela, eta beste zenbait jarduketa ere gauzatuko direla. Kaltetuen laguntzak nola ari diren kudeatzen ere azaldu du.

Azkenik, Ingurumeneko zinegotzi den Keltse Figuren andreak jakinarazi du, posta elektronikoz jakinarazi zitzaizen bezala, uholdeen ondorioz atzeratu egin zirela Aste Berdeko ekintzak, eta mugikortasunaren astean egingo zirela.

Jose Almeida jaunak jakin nahi du ea zein kale itxiko diren zirkulazioarentzat, eta karga- eta deskarga-lanetarako baimen bereziak ematea eskatu du.

Ingurumeneko teknikari den Josu Ateka jaunak adierazi dio aurreko urteetako kale berdinak itxiko direla. Herritarrek Getxo bertako dendetan eros dezaten bultzatzeko ekintza bat gauzatuko da. Gainera, herriko merkatari guztiei gutun bat banatuko zaie, mugikortasunaren astearen berri emanez, eta karga- eta deskarga-lanetarako baimen berezi bat eskuratzeko aukera emanez.

Ahal bada behintzat Martiartu Dorrera oinez joan ahal izatea proposatu da.

Arratsaldeko 21.30 direnean, bilera amaitutzat eman da.

elaborado por URA Agencia Vasca del Agua, dependiente del Ejecutivo autonómico. Que el proyecto será revisado por los técnicos del Ayuntamiento para su posterior aprobación. Después es intención por parte de ambas instituciones sacarlo a exposición pública para que el proyecto puedan conocerlo los y las vecinas del municipio. Asimismo, Joseba Arregui informa que se va a revisar la red de saneamiento municipal y realizar otro tipo de actuaciones, además de como se están gestionando las ayudas a los damnificados.

Por último, la concejala de Medio Ambiente, Dña. Keltse Figuren, informa que, tal y como se les había comunicado a través del correo electrónico, las acciones de la Aste Berdea se habían pospuesto, con motivo de las inundaciones, trasladándose a la semana de la movilidad.

José Almeida se interesa por los tramos que se van a cerrar al tráfico y solicitando se le concedan permisos especiales para carga y descarga.

El técnico de Medio Ambiente, Josu Ateka, le informa que los cortes se harán en los mismos tramos que años anteriores, se intentará realizar una acción para que se compre en el comercio de Getxo y se entregará una carta en mano a todos los comerciantes del municipio, anunciándoles la semana de la movilidad y dándoles la oportunidad de que obtengan un permiso especial de carga y descarga.

Se propone si es posible, conseguir que se pueda ir andando a la Torre Martiartu.

A las 21:30 horas se da por finalizada la reunión.